

Basoeskola Proiektua

HH5eko taldeek Basoeskola proiektuarekin jarraitzen dugu. Astero-astero, gure ikastola inguruko natur-eremu batera joaten gara bertako txokoak arakatu eta ezagutzera. Proiektuari esker konturatu gara Donostian, Villa Soroatik oso gertu, naturgune oso aberatsak ditugula: Ametzagaina, Gladys-enea, hondartza, Uliako mintegiak, Toki-alai eta noski, Uliak bera! Joaten garen bakoitzean oso desberdin aurkitzen ditugu, eta gauza berri asko ikasten dugu bertan jolasean! Familian ere bertara joatera gonbidatzen zaituztegu, eta gogoratu: ez dago eguraldi txarrik, jantzi desegokiak baizik!



LH6koak Ulian

Aste honetan, Ikastolatik atera eta goiz pasa ibili gara Ulian LH 6ko ikasleok. Gure inguruez gozatu, eta elkarrekin tarte ederra pasatzeko aukera izan dugu.




Ekonomiako ikasleen blogak

DBH 4, Batxi 1 eta Batxi 2-ko hainbat ikaslek Ekonomia eta Enpresa Ekonomia ikasgaiak lantzen ditugu aukerakortasun-eskaintza baliatuz. Ekonomiako gaiak lantzeko, blog bat sortzen dugu guztion artean, gaur egungo ekonomiari buruzko artikulak bilduz. Hemen dituzue blogak:

[Ekonomia DBH 4](#)

[Ekonomia Batxi 1](#)

[Enpresa Ekonomia Batxi 2](#)



Bizitzaren Zuhaitza

Aste honetan Haur Minbiziaren Nazioarteko Eguna izan da, eta gaiaren lanketa eginez, LH-ko talde batek Bizitzaren Zuhaitza sortu dute, Aspanogi elkarrearen "Biziraupen hobe posible da" kanpainarekin bat eginez.



OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Basoeskola. Goizpasa. HH5A-B (Ainere-Miren) otsailak 24. HH5C-D (Ainere-Miren) otsailak 26.
- **DBH2:** Heziketa afektibo-sexuala. Otsailak 22 (A taldea) eta otsailak 24 (B taldea).
- **HAURTXOKOA eta GAZTELEKUA:** Berriz martxan! [Informazioa](#).

